



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 21a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu-agentziaren bat ixteko aurreikuspenari buruzkoa. José Javier Esparza Aburrea jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Deikaztelu Ezkio-Itsasorekin eta Nafarroa Landekin lotuko lituzketen goi tentsioko lineen proiektuak direla-eta Nafarroako Gobernuak jasotako informazio berriari buruzkoa. David Anaut Peña jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Basoko BHIko, Barañain BHIko eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak hizkuntzaren arloan darabilen politikari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako 2025eko Plan Integratuaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, NPbaren laguntza ordaintzeko epea luzatzeak Nafarroarentzat dakartzan ondorioei buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren aginte-koadroaren gaineko informazioaren bidalketa atzeratzearen arrazoiei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko British-PAI ikastetxeetan 2015-2016 ikasturtean egindako ebaluazioei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, zor publikoak 2016ko lehen hilabeteetan izandako bilakaerari eta egindako jaulkipenen zenbatekoari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (8. or.).
- Galdera, 2016ko urtarriletik apirilera bitarteko diru-sarreraren eta gastuen bilakaerari eta diru-sarreraren maiztzeke bilakaerari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (8. or.).
- Galdera, ekainaren 17an iragarritako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa. José Javier Esparza Aburrea jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Foru Administrazioiko lanpostu hutsen kopururako murrizta den lan-eskaintza publikoari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Club Atlético Osasunaren zorra berregituratzeko Foru Legearen balantzeari buruzkoa, betekizun fiskalei eta aurreikusitako epeei dagokienez. María Chivite Navascués andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren zuzendaritza-egitura eta Nafarroako Parlamentuak Administrazio Kontseilurako izendatu beharrekoak diren kideak berritzeari buruzkoa. Laura Pérez Ruano andreak egin du (11. or.).
- Galdera, ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 28an egindako mobilizazio baketsuaren aurrean Foruzaingoak eginiko jarduketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).
- Galdera, Lan Autonomoaren Plan Estrategikoari buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (12. or.).
- Galdera, prostituzioa genero-indarkeriaren eta emakumeen sexu-esplotazioaren baliokide dela dioten sensibilizazio-kanpainak gauzateari buruzkoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Batzordean izapidetzea (12. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu-agentziaren bat itxeko aurreikuspenari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu-agentziaren bat itxeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldearen eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren enplegu-agentziaren bat itxeko asmorik al du? Baiezkoan, zer agentzia itxiko ditu? Zergatik?

Iruñean, 2016ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Deikaztelu Ezkio-Itsasorekin eta Nafarroa Landekin lotuko lituzketen goi tentsioko lineen proiektuak direla-eta Nafarroako Gobernuak jasotako informazio berriari buruzkoa.

DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Deikaztelu Ezkio-Itsasorekin eta Nafarroa Landekin lotuko lituzketen goi tentsioko lineen proiektuak direla-eta Nafarroako Gobernuak jasotako informazio berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroak parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari David Anaut Peñak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du

Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

2016ko otsailaren 4ko Osoko Bilkuran EH Bilkuraren ustez Nafarroa zeharkatuko duten goi-tentsioko bi linearen inguruko galdera egin zion Gobernuari. Deikaztelu eta Ezkio-ltsaso lotuzko lituzkeena bata, eta Landekin lotura eginen lukeena bestea.

Orduz geroztik gai horren inguruko berri gehiago argitaratu da hedabideetan, eta argibide zehatz askorik eman ez den arren, badirudi proiektuetako batean behintzat –Deikaztelu eta Ezkio-ltsaso lotuzko lituzkeen horretan hain zuzen ere– hasierako proiektuarekiko aldaketak egon litezkeela.

Bestalde, 2016ko otsaileko osoko bilkuran emandako erantzunean Kontseilariak esan zuen

proiektu hauen inguruan informazioa jasotzeko harremanak egiten ari zirela eta, halaber, plan energetikoaren lanketaren barruan ere azterketa xehe bat egin behar zutela.

Horiek guztiak kontuan hartuta,

Zein da Nafarroako Gobernuak, egin duen kudeaketaren bitartez, bi proiektu hauei buruz jaso duen informazio berria? Deikaztelu eta Ezkio-ltsaso lotuko lituzkeen goi tentsioko linea horren ibilbidea aldatu baldin bada, horrek Ingurumen Inpaktuaren Adierazpen berria beharko lukeenez, noiz egin eta ebatziko litzateke Adierazpen hori? Proiektu berrian azpiestaziorik ba ote dago?

Iruñean, 2016ko ekainaren 15ean.

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Basoko BHiko, Barañain BHiko eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Basoko BHiko, Barañain BHiko eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Zer arrazoi egon da Basoko BHiko, Barañain BHiko eta Corellako Arte eta Diseinu Eskolako garbiketa-zerbitzuak pribatizatzeak? Programakordioan jasotzen da “azken urteetan foru-administrazioaren barruan egindako zerbitzu-privatizazioak

aztertzea.” Noizko aurreikusten da garbiketa-zerbitzuen birpublikotzea?

Iruñean, 2016ko ekainaren 15ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak hizkuntzaren arloan darabilen politikari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak hizkuntzaren arloan darabilen politikari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Herritarrekiko eta Erakundeekiko

Harremanetako kontseilariak 2016ko ekainaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken hilabete honetan argitaratu dira hizkuntza politikarekin eta euskararen irakaskuntzarekin lotutako zenbait laguntza-deialdi; esaterako, helduen euskalduntzearekin edo irabazi asmorik gabeko erakundeek eta hedabideek euskara sustatzearekin lotutakoak. Halaber, udaletan euskara sustatzeko laguntzen deialdia laster argitaratzea espero da. Orobat jakin dugu jada abian dela Plan Estrategikoa ekarriko duen lana.

Nafarroako Gobernu berria eratu zenetik ia urtebete igaro da, eta programa-akordioan jasotzen denez neurri zehatzak hartuko direla euskararen tratamenduan jarraitu beharreko ildoak nabarmen aldatzeko, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Zertan da zure departamentuak hizkuntza politikaren arloan darabilen politika? Hurrengo hilabeteotan arlo horretan zer urrats egiteko asmoa duzue?

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: María Solana Arana

Galdera, Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako 2025eko Plan Integratuaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako 2025eko Plan Integratuaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako 2025eko Plan Integratuaren zirriborroari ekarpenak egiteko epea bukatuta (plana uztailaren 30ean argitaratuko bide da NAOn):

Zenbat ekarpen egin zaizkio Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako 2025eko Plan Integratuaren zirriborroari? Horietako zeintzuk jasoko dira planean?

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, NPBaren laguntza ordaintzeko epea luzatzeak Nafarroarentzat dakartzan ondorioei buruzkoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, NPBaren laguntza ordaintzeko epea luzatzeak Nafarroarentzat dakartzan ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, ekainaren 23ko Osoko Bilkuran Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak ahoz erantzun diezaion:

Jakinik Nafarroan atzeratuta gabiltzala konpentsazio-ordainaren ordainketan eta artzaintzaren bidezko jasangarritasun-sistemetan, eta urriaren 15era bitarte luzatu denez Bruselak Europar Batasuneko estatuei NPBaren laguntza ordain dezaten emandako epea,

Horrek guztiak zer ondorio ditu Nafarroarentzat?

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an.

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

Galdera, Osasun Departamentuaren aginte-koadroaren gaineko informazioaren bidalketa atzeratzearen arrazoiei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren aginte-koadroaren gaineko informazioaren bidalketa atzeratzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ekainaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik atzeratu ohi da Departamentuaren aginte-koadroaren gaineko informazioaren hileroko bidalketa?

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko British-PAI ikastetxeetan 2015-2016 ikasturtean egindako ebaluazioei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko British-PAI ikastetxeetan 2015-2016 ikasturtean egindako ebaluazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentutalderari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak zer balorazio egiten du Nafarroako Foru Komunitateko British-PAI ikastetxeei 2015-2016 ikasturte honetan egin zaizkien ebaluazio ezberdinei buruz?

Iruñean, 2016ko ekainaren 16an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, zor publikoak 2016ko lehen hilabeteetan izandako bilakaerari eta egindako jaulkipenen zenbatekoari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, zor publikoak 2016ko lehen hilabeteetan izandako bilakaerari eta egindako jaulkipenen zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zeintzuk izan dira zor publikoak 2016ko lehen hilabeteetan izandako bilakaera eta egindako jaulkipenen zenbatekoa?

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, 2016ko urtarriletik apirilera bitarteko diru-sarreraren eta gastuen bilakaerari eta diru-sarreraren maiatzeko bilakaerari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, 2016ko urtarriletik apirilera bitarteko diru-sarreraren eta gastuen bilakaerari eta diru-sarreraren maiatzeko bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein izan da 2016ko urtarriletik apirilera bitarteko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera, 2015eko aldi beraren eta 2016ko aurrekontuaren aldean? Zein izan da diru-sarreraren maiatzeko bilakaera?

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, ekainaren 17an iragarritako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ekainaren 17an iragarritako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia

dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak ostiral honetan bertan egin du lan-eskaintza publikorako deialdiaren iragarpena. Hori dela-eta,

Gobernuak lanpostu horietako zenbatetan aurreikusten du ezarriko dela euskaraz jakitea nahitaezko baldintza gisa?

Iruñean, 2016ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Foru Administrazioako lanpostu hutsen kopururako murrizta den lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Foru Administrazioako lanpostu hutsen kopururako murrizta den lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun han-

diko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko ekainaren 23an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrari ekainaren 17an proposatu zion bigarren lan-eskaintza publiko bat egitea 2016an, 298 lanpostu betetze aldera Administrazio Erroan (hortik kanpo gelditzen dira hezkuntza eta osasun arloetako langileak), Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan.

Foru Administrazioan osotara zenbat lanpostu huts dagoen ikusita, Gobernuak zer dela-eta proposatu du halako lan-eskaintza publiko murriztua?

Iruñean, 2016ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Club Atlético Osasunaren zorra berregituratzeko Foru Legearen balantzeari buruzkoa, betekizun fiskalei eta aurreikusitako epeei dagokienez.

MARÍA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Club Atlético Osasunaren zorra berregituratzeko Foru Legearen balantzeari buruz Nafarroako Gobernuak, betekizun fiskalei eta aurreikusitako epeei dagokienez, egiten duen balantzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, ekainaren 23ko Osoko Bilkuran erantzun dakion.

2014ko abenduan onetsi zen Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin

duen zorra berregituratu zuen foru legea. Ekimen hura zor zitzaion haren finantza-egoera larriki okertu izanari, Futbol Profesionaleko Liga Nazionaleko bigarren A mailara jaitsi izanaren ondorioz. Halatan, foru lege hark helburu bikoitza zuen, Club Atlético Osasunarekin bat etorritik: alde bate-tik, klubak osorik kitatzea altxor publikoarekin hartutako betebeharrak; bestetik, betebehar horiek bete zitezten halako moduan non Osasunak bizirik iraun ahal izanen baitzuen, gaur egun bizi duen finantza-egoera larri-larria gorabehera.

Une honetan, non taldea Lehenengo Mailara igo baita, Club Atlético Osasunak Nafarroako Zerga Ogasunari zenbait finka eskualdatzearekin ase ez den zerga-zorren diferentzialaren baldintzak aldekoak dira, bai ikus-entzunezko eskubideen bolumenarengatik, bai interes-moratoriaren amaierarengatik.

Azken finean, talde honek uste du foru legeak bete egin duela zerga-zorra ordaintzearen eta gizarte-entitatea iraunaraztearen helburu bikoitz hori.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du foru lege horren balantzeaz, betekizun fiskalei eta aurreikusitako epeei dagokienez? .

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an.

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren zuzendaritza-egitura eta Nafarroako Parlamentuak Administrazio Kontseilurako izendatu beharrekoak diren kideak berritzeari buruzkoa.

LAURA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren zuzendaritza-egitura eta Nafarroako Parlamentuak Administrazio Kontseilurako izendatu beharrekoak diren kideak berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko ekainaren 23ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak noiz berri nahi ditu Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren zuzendaritza-egitura, bai eta Nafarroako Parlamentuak Administrazio Kontseilurako izendatu beharrekoak diren kideak ere?

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 28an egindako mobilizazio baketsuaren aurrean Foruzaingoak eginiko jarduketari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera ikasleek Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 28an egindako mobilizazio baketsuaren aurrean Foru-

zaingoak eginiko jarduketari buruzkoa zen, eta 2016ko maiatzaren 6ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Lan Autonomoaren Plan Estrategikoari buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Lan Autonomoaren Plan Estrategikoari buruzkoa, Garapen Ekonomi-

korako kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, prostituzioa genero-indarkeriaren eta emakumeen sexu-esplotazioaren baliokide dela dioten sentsibilizazio-kanpainak gauzatzeari buruzkoa.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO, BARNE ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 20an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, prostituzioa genero-indarkeriaren eta emakumeen sexu-esplotazioaren baliokide dela dioten sentsibilizazio-kanpainak gauzatzeari buruzkoa,

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2016ko ekainaren 10eko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza